

Monica gure klasera dator



—Shhh! Monica etortzear dago, badakizue isilik egon eta eskua altxatu behar duzuela hitz egiteko —azaldu du Cristina irakasleak.

—Ados!!! —oihu egiten dute emozioz Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleek.



—Egun on. Monica dut izena eta Felino Zentroko begiralea naiz.

—Egun on, Monica! —agurtu dute ikasleek.



—Inork ikusi al du kaleko katurik?

—Noski! —diote barre artean.

—Bada, nire taldean auzo osoan bilatzen ditugu katuak, non bizi diren eta zenbat diren adierazteko. Horietakoren bat ikusi nahi duzue?

—Bai!



Zenbait minutuz katuen argazkiak ikusi ondoren, Clarak eskua altxatu eta pazientziaz itxaroten du hitz egiteko txanda noiz emango dioten.

—Esadazu, Clara —esan du irakasleak.

—Katutxo beltz hori etxera eraman nahi nuke. Emango didazu? —galdetu du Clarak.


—Nahiko nuke, ziur oso ondo zainduko zenukeela, baina kaleko katuak ez dira etxeetara egokitzen —erantzun du Monicak.

—Hara... —erantzun du, adorerik gabe.

Animatzen saiatzeko, Mateo kideak esaten dio:

—Ez kezkatu, Clara, beti har dezakezu bat animali-elkartean, zure familiak beti zaintzeko konpromisoa hartzen badu.

—Oso ondo esanda, Mateo —dio harro bere irakasleak.




—Katu bakoitzari fitxa bat ere egiten dioqu. Bertan, daukaten pisua eta albaitariari eramaten dizkiogun aldiak adierazten ditugu, besteak beste —jarraitu du Monicak azalpenarekin.


—Oso garrantzitsua da bizilagunek guri laguntzeko egiten dugun lanaren berri izatea.

—Nire bizilagun guztiei esango diet! —oihukatu du Sarak.

—Eta ni, eta ni! —oihu egiten dute gainerako kideek.




—Plater eta edalontzi garbietan jatea eta edatea gustatzen zaionari eskua
altxa dezala —eskatu du Monicak. Ikusten dut denoi gustatzen zaizuela.
Katuei ere, horregatik garbitzen dizkiegu janlekuak eta edanlekuak.




—Zailena harrapatzea da, al baitariarengana eramateko. Arrain-latatzak dituzten kaiolak erabiltzen ditugu, janariaren usainera sar daitezten. Behin barruan ditugula, burusitxo batekin estaltzen dugu kaiola.

—Zein da euren janari gogokoena? —galdetu du Luciak.

—Izugarri gustatzen zaizkie katuentzako arrain-latak.




—Behin harrapatzen ditugunean, ziurtatu behar dugu ez daudela egun bat baino gehiago kanpoan, bere lagunek ez ditzaten faltan bota.



—Koloniara itzultzen ditugu, mikrotxipa eta belarrian marka bat jarrita, harrapatuak izan direla jakiteko. Horrela, markadun katu bat kaiolan sartzen bada, badakigu askatu egin behar dugula.

—Bai interesgarria! Eta zertarako balio du mikrotxipak? —galdetu du Eduk.

—Katua identifikatzeko balio du. Zure NANA bezalakoa da —zalantza argitzen dio Monicak.



—Askatu aurretik egiten dugun beste gauza bat esterilizatzea da, katutxo gehiago izan ez ditzaten, kolonian bizi diren katu kopurua kontrolatzeko. Inork badu zalantzarik?

—Ez, oso argi dago dena —erantzun dute ikasleek.

—Eskerrik asko, Monica, gure auzoko katuei laguntzeko etorri eta zer egiten duzun kontatzeagatik —dio Cristina irakasleak.

—Zuei hain arreta handiz entzuteagatik.



Argitaratzailea: © Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030 Ministerioa. Idazkaritza Nagusi Teknikoa. Argitalpen Zentroa
NIPO linean: 129-23-027-0
Idazlea: Cristina Soler
Diseinua eta maketazioa: MIC argitaletxea. Jatorrizko testua: Cristina Soler. Ilustrazioak: Juanjo Jiménez
<https://cpage.mpr.gob.es/>

Baimena ematen da irakaskuntza-erakundeek, elkarteek eta irabazi-asmorik gabeko beste edozein erakunde pribatuk material hauek online zabaltzeko eta erreprografikoki erreproduzitzeko, irakaskuntza- eta dibulgazio-helburuekin. Bi kasuetan, haren osotasuna errespetatu beharko da, baita argitalpen-kredituak ere. Beste edozein erabileratarako, baimena eskatu beharko zaio Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030 Ministerioari, horien gaineko eskubideen titular den aldetik.

Monica gure klasera dator

Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleak hunkituta daude Monica Felino ikastetxeko begiralearen bisitarekin. Murgildu zaitez gelan eta ezagutu kolonia felinoen funtzionamendua.

